

# Murder Mystery



SANTI LEONÉ

**E**l Pais egunkariak kontatu du: Netflixen sekulako arrakasta izan duen film bat, *Murder Mystery*, Espainiaren eta espainolen irudi estereotipatua ematen ari da. Ez dut ikusi –nork bere gustu zinematografikoak ditu: Jennifer Aniston eta Adam Sandler ez dira preseski nire aktore gogokoenen zerrendan– baina bertze nonbait irakurri dut filmeko atal luzeena Frantzian gertatzen dela, eta Espainiakoa pasarte labur bat bertzerik ez dela. Nolanahi ere, ez da horrelako irudi bat ematen den lehen aldia. *Doom Patrol* telesailen apez espainol baten eskuetan irekitzen diren estigmatan dago infernurako sarrera, eta bai apezaren bai fededunen itxurak Rio Grandetik hegoaldera bizi direnen itxuraren antz susmagarriki handia du. Euskaldunak eta espainolak zaku berean sartuta, mitikoa da McGyver oihan tropikalean kolonbiar itxurako ETakideen artean ibili zeneko kapitulua.

Estereotipo horiek ekartzen duten sinplifikazioaz gainera, estereotipoaren jomugan dagoenak izan uste duen inportantzia hainbertzekoa ez dela ikustea izaten da minaren sorburua –"Espainia non den ere ez dakite"–, bai eta estereotipo hori negatiboa izatea –alemanak eraginkorrak, zorrotzak eta akasgabeak direlako ere estereotipoa da, baina ez dut uste horregatik inor asaldatzen denik–.

*El Pais*-eko artikulugileak aipatzen du *Murder Mystery*-k Espainiaren gaineko irudi zaharkitua ematen duela; pertsonaia batzuek, adibidez, banderaren koloreak daramatzate arropen sinestezina!-. Arrazoirik ez du falta: tristea da hainbertze diru gastatzea horrelako irudi bat emateko, Espainiako zentro-eskuineko politikari gehienak –eta zentro-ezkerreko ez guti– irudi penagarri berbera doan ematen ari badira.

Itsusia, nolanahi ere, horrelako estereotipoekin jostetan aritzea. Zera, aste honetan *Los Japón* ikusi beharko dugu. ●

ADUR LARREA  
www.adurlarrea.com



ADUR

## "EH BILDU-REN ALIANTZA POLITIKA BERRAZTERTU BEHAR DUGU"

**ARNALDO OTEGI, EH BILDUKO KOORDINATZAILE OROKORRA:**

"Gure kultura politikoan, subiranotasuna oinarri, beti eman diogu lehentasuna EAJrekin egindako aliantza integral eta bakarrari. Uste dut posizio hau berraztertu behar dugula: adibidez, Guardian EAJrekin ari gara gobernatzen eta Durangon Ahal Dugurekin. Horrek esan nahi du aliantzen jokoa modu asimetrikoan bideratu behar dugula".

(GARA, 2019/07/8)

